

Alabak ezin Amets izan eta semea ezin Izar deitu

Aratz, Alatz, Eli, Kutun, Zorion, Zuri, Gabon deitu nahi badiozu alabari, ahaztu. Berdin semeari Itoitz, Jata, Lur, Oritz, Sua, Ugo, Uritz jarri nahi izanez gero. Euskaltzaindiaren arabera, lehenengo zerrendakoak izen maskulinoak dira eta bigarren zerrendakoak, femeninoak. Eta Ipar Euskal Herrian legea malguagoa bada ere, Hegoaldean zorrotzak dira sexu bakoitzari dagozkion izenekin. Baita izenen grafia eta bestelako ezaugarriekin ere. Ezin seme-alabei edozein izen jarri.

MIKEL GARCIA

AMERIKAKO ESTATU BATUETAN, modarik bitxientzat lekua dagoen herrialdean, bogan daude jaioberriari izena jartzeko aholkuak ematen dituzten “adituak”. Gurasoei 90 dolar (70 euro inguru) kobratzen diete gainera. Halako zerbitzuetara iritsi beharra gehitxo badirudi ere, nahikoa buruhauste eman ohi du seme-alabaren izena aukeratzeak. Eta behin argi dugunean, erregistro zibilera joan —herri txikien kasuan bake-epaitegira— eta trabak jarri ditzakete izen guztiak ez dira onargarriak.

Frantziako Estatuan, badira 11 urte arauak leundu zituztela. Lehen, esaterako, ‘ñ’ hizkia ezin zen izenetan erabili, ez zelako frantziar karakterea. Orain, ordea, izena nahi den grafiarekin idatz daiteke —izen bera modu desberdinetan idatzia aurkituko dugu askotan Iparraldean— eta edozein izen aukera daiteke, lehenagotik existitzen dela

frogatu beharrik gabe. Muga bakarra dago: “Moral publikoaren aurkakoa ez dadila izan”.

Espainiako Estatuan, aldiz, zorrotzagoa da legea, eta ondorioz, baita Hego Euskal Herrian ere. Espainiako Kode Zibilaren arabera, “ezin da izen elkartu bat edo bi izen bakun baino gehiago jarri, eta debekatuak daude objektiboki pertsona kaltetuko duten izenak. Halaber, debekatuak daude identifikazioari eta sexuari dagokionez nahasmena sor dezaketanak. Jaioberriari ezin zaio anai-arrebak duen izen bera jarri, beste hizkuntza batean baldin bada ere, anai-arreba hilda ez badago behintzat”.

Praktikara eramanda, nola eragiten du horrek guztiak? Euskarazko izenen kasuan, Euskaltzaindiaren izendegia kontsultatzen dute erregistro zibileko langileek —web gunean normalean, telefonoz deituta bestela—, eta beharrezkoa da zerrendan agertzea, Euskaltzaindiak onartutako ortografia errespetatzea eta izenari dagokion sexukoa izatea jaioberria. “Adibidez

—kontatu digu Pilar Etxebeste Donostiako erregistro zibileko langileak—, guraso batzuek Naia jarri nahi zioten alabari lehengo egunean. ‘H’ gabe euskaraz ez dago onartua, baina bai atzerriko beste hizkuntza batean, eta beraz jarri daiteke, baina ez dela euskarazko izena jakinarazi nien”.

Hain zuzen, grafia izan ohi da arazo gehien ematen dituen. Baina normalean kezarik ez dela izaten dio Etxebestek, onartutakora egokitzen baitira gurasoak. “Behin, Leyre y grekoz jarri nahian etorri zitzaizkidan, eta nik ‘i’-rekin zela esan nien, baina ikusten denez Leyreko Monasterioa, Nafarroan, y grekoarekin idazten da, eta onartua dago”. Lehen, diminutiboek arazo asko ematen zituztela gaineratu du: “Esaterako, Seaska egutegian agertzen ziren diminutiboekin etorri ohi zen jende asko, baina Seaskak izentzat hartzen zuena diminutibotzat hartzen zuen Euskaltzaindiak”. Orain, ez dago buruhausterik, 2007ko martxoaren 16an araua aldatu baitzen: “Pertsonen izen propioaren aukeraketa librea bermatzeko, indargabetu egingo da izen propio bezala inskribatzeko diminutiboan edo substantibitate lortu ez duten familia eta lagunarteko aldaeren debekua”, dio Kode Zibilak.

Izenaren sexuarekin, berriz, ez omen da arazo askorik izaten. “Ilargi izenarekin problemak egon ziren —gogoratu du—, neska izena dela baitio Euskaltzaindiak eta mutil bati jarri nahi izan zioten, baina azkenean magistra-



tuak onartzea erabaki zuen”. Izan ere, magistratuak du azken hitza, eta beraz, askotan magistratuaren senar-araberkoa da epaia.

Fuckme, Porsche, Alua, Aker

Finean, Ilargi mutilari jartzeak zer kalte ekar dezake? Non dago muga? Mikel Gorrotxategi euskaltzainak, Patxi Salaberrirekin batera 2001eko euskal izendegiaren egileak, argi dauka: “Umea legez babestu behar da eta ez da edozer onartzen. Jendeak esan dezake: ‘Nor da legegile hori niri mugak jartzeko? Nik umearentzat onena nahi dut’. Baina errealitatea da lege malguagoa dagoen lekuetan, AEBetan esaterako, onartzen diren izenak ez direla onargarriak: adibidez, Fuckme (larrua joiezadazu). Alemanian alabari Porsche izena jartzen saiatu ziren, Mercedes izeneko emakumeak daudela argudiatuz. Suedian, umeari bokalik gabeko 56 zeinu tipografiko jarraian jartzeagatik zigortu zituzten gurasaok. Euskal Herrian ere izan dugu kasurik: gizon erdaldun batek alabari Alua deitu nahi izan zion eta andre batek semeari Aker. Akerrek egungo gizartean kutsu negatiboa duela esan zitzaion eta erantzun zuen semeak pertsonalitate asko izango zuela eta ez zitzaiola axolako”. Ordots, Ozpin edota Zakar bezalako izenak ere debekatuak daude, iraingarritzat hartzen direlako. Baina arraroak iruditu dakizkigukeen beste hainbat izen zerrendatuta eta beraz onartuta ditu Euskaltzaindiak: Semena, Tota, Mazmela, Baltz, Heren, Gindul, Gometz, Kaio edota Puskene, besteak beste.

Izenen sexu bereizketa ere beharrezkoa iruditzen zaio euskaltzainari. Bere esanetan, euskal izendegia argitaratu aurretik izen batzuk neskak nahiz mutilak izendatzeko erabiltzen ziren, eta ondorioz nahasmen handia zegoen justizian, irakaskuntzan eta beste hainbat alorretan. “Jendeak pentsatzen du izen arrunten kasuan



Onomastikaren historia

Lehen euskal izendegia 1966an egin zuen Euskaltzaindiak, Aingeru Irigariren eskutik, baina ez zuen zabalkunde handiegirik izan. Frantziara indarrean zegoen, agente gogorrean. 1972an, Jose Mari Satrustegik eragin erabatekoa izango zuen *Onomástico vasco. Euskal izendegia* argitaratu zuen, Euskaltzaindiaren aginduz. Lehenengo argitaraldia 50.000 alekoa izan zen eta Euskal Herriko txoko guztietara zabaldu ziren Ainhua, Idoia, Irati, Leire eta egun hain arruntak diren beste izen asko. 76an eta 82an, liburuaren argitalpen osatuagoak kaleratu zituzten, eta 2001ean, azken izendegia idatzi zuten Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberri euskaltzainek. Izendegia Euskaltzaindiaren web gunean kontsulta daiteke eta izen zerrendaz gain, bakoitzaren jatorria eta beste hainbat azalpen ere baditu. Zerrenda osatzeko, dokumentuak eta errealitatea –erabilerak urteetan erakutsi duena– dira kontuan hartu dituzten irizpideak. Hala ere, muga non ipini behar den jakitea batzuetan zaila dela aitortu digu Gorrotxategik.

euskaraz sexu markarik ez dagoenez, sexu markarik gabeko pertsona izenak daudela –diosku–, eta hori euskarazko sistemaren kontrako ustea da. Euskarazko izenak, ezagutzen ditugun neurrian, beti izan dira neska edo mutil izenak, ez dago izen mistorik”. Adibidez, Koldo Mitxelenaek zioen ‘-a’ amaiera hartu zela latinetik

Beharrezkoa da izena
euskal izendegian agertzea,
Euskaltzaindiak
onartutako ortografia
errespetatzea eta dagokion
sexukoa izatea

emakume izenak egiteko –euskaraz ohikoak ziren Inesa eta Isabela, Ines eta Isabel, kontsonantez bukatuak, euskaldun elebakarrentzat mutil itxura zutelako– eta kontsonantez amaitzen direnak oro har izen maskulinoak direla dio euskarazko sistemak.

Baina Euskaltzaindira gerturatu diren gurasa gehienek zalantza ez dago sexuarekin lotuta, izen berriekin baizik. Hainbatek, familiako kideren batek zuelako, liburuaren batean irakurri duelako edo nonbait entzun duelako, euskal izendegian agertzen ez den izena jartzea du asmo. Berez, izenaren

existentzia frogatzea eskatzen den arren, izen berriak ere sor daitezke. Gorrotxategik argitu digunez, dokumentazioan izen berriak aurkitzen dituzte batzuetan; gainera, toponimoak eta adjektiboak, iraingarriak ez badira eta erabiltzeko modukoak badira, jar daitezke.

Legedia atzerrian

Europan, orokorrean, nahiko zorrotzak dira izenen inguruko araudiekin. Portugalen, ez da onartzen portugesez ez dagoen izenik ez eta diminitiborik ere. Italian debekatuta daude leku izenak –ezingo genioke alabari Leire edo Ainhua deitu– eta Alemanian izenak zerrendaturik daude eta sexuaren arabera bereizita. Amerikan, ostera, askatasun handia dago eta Hego Amerikan adibidez edozer gauza entzutera ohituta daude: Usnabi (AEBetako itsas armada alegia), Superman, Hitler, Makgiber, Genghis Khan, Hiroshima, Apolo Tres edota Backstreet Boys izeneko haurrak aurki daitezke. Orain arte, behintzat. Izan ere, Venezuelan jaioberrientzako izen posibleen zerrenda 100era mugatu nahi duela iragarri berri du Hugo Chávezek. Zorionez, gurean zerrenda ez da hain mugatua, baina alabak ez du Amets izena eramango eta semea ezingo da Izar deitu. ■

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure
artean
euskaraz



BFA
DFB